

Natxitu, Ie eta Bedaronako Plangintza Estrategikoa

2015eko uztaila

HELBURUA

Misioa

Modu koordinatuan eta herritarren partehartzeaz Ie, Natxitu eta Bedaronako garapen integrala lortzeko bidea marraztea.

Bisioa

1. Herritarrek beraien garapenean eragiten duten erabakiak hartzen dituzten herria, aktiboki eta modu eraginkorrean (Ardatz estrateikoa 0: Herritarren parte hartzea).
2. Garapen ekonomiko orekatuaren bidez eta ingurumenarekiko errespetuaz kalitatezko enplegu iraunkorra lortzeko baldintzak sortzen dituen herria (Ardatz estrategikoa 1: Tokiko garapen ekonomiko orekatua).
3. Baliabide natural eta energetikoen kudeaketa iraunkorra egiten duen herria (Ardatz estrategikoa 2: Ingurumenaren zaintza eta hondakinen kudeaketa iraunkorra).
4. Herritarrei bizi kalitate ona eskeintzen dien herria; oinarrizko zerbitzu publiko eta ekipamentu publiko egokiak eskeiniz eta herriko ondare natural eta kulturala zainduaz eta suspertuaz (Ardatz estrategikoa 3: Bizi kalitatea, zerbitzu publikoak eta kultura).
5. Herriaren izaera eta identitatea mantenduaz herritarrei bertan bizi ahal izateko etxebizitzaren eskuragarritasuna eskaintzen duen herria (Ardatz estrategikoa 4: etxebizitzatea eta lurralde identitatea).
6. Euskeraz bizi den herria (Ardatz estrategikoa 5: herri euskalduna).

Ardatz estrategikoa 0: Eredu partehartzaile integral bat garatzea, Plangintza Estrategiko honen betetzea eta birdefinitzea ahalmentzen duena.

Helburu estrategikoa 0.1: Herritarren parte hartze aktiboa ahalmentzen eta bermatzen duen eredia definitu eta ezartzea

Helburu estrategikoa 0.2: Gazteen inplikazio aktiboa bultzatzea Plangintza Estrategikoa garatzeko.

Helburu estrategikoa 0.3: Emakumeen parte hartzea bultzatzea kudeaketa eta erabaki organoetan.

Helburu estrategikoa 0.4: Parte hartzea ahalbideratzen eta bultzatzen duten bitartekoak diseinatu eta ezarri

Helburu operatiboa 0.4.1 Iradokizunen prozesua diseinatu eta martxan jarri.

Helburu operatiboa 0.4.2 Arlokako Batzordeak diseinatu eta martxan jarri

Helburu operatiboa 0.4.3 Plenoetan herritarrek berba egiteko eta gai ordenan puntuak txertatzea bermatu

Helburu estrategikoa 0.5 Parte hartzean herritarrak hezi eta formatu

Ardatz estrategikoa 1: Garapen ekonomiko orekatua sustatu jarduera (sostenibleetan) oinarritua edota kutsadura gutxi sortzen dutenetan, herrian kalitatezko enplegu iraunkorra sortzea ahalbideratzen duena.

Helburu estrategikoa 1.1: Nekazaritza eta abeltzantza sektorea sustatu eta indartu

Helburu operatiboa 1.1.1.: Bertoko baserritarren produktuak herrian kontsumitzeko bitartekoak jarri edota jartzen lagundu (kotnsumo talde, denda txiki, merkatu, jantoki kolektibo, txosnak).

Helburu operatiboa 1.1.2. Lur bankua martxan jarri.

Helburu operatiboa 1.1.3. Baserritarrek euren produktuetatik balio erantsia lortzeko produktuen transformazio guneak eta hiltegia bideratzeko ahalegina egin eskualde mailan.

Helburu operatiboa 1.1.4. Ikastaroak: agroekologian, ortugintzan, kontserbak, sendabelarrak...

Helburu operatiboa 1.1.5. Herriko baserritar eta ekoizleen funtzio sozialaren berri emateko eta sasoian sasoiko eta tokian tokikoa erosteko sentsibilizazio kanpainak egin.

Helburu estrategikoa 1.2: Zerbitzuen ekonomia sustatu, bertoko baserritarrekin elkarlanean produktuak herriko dendetan sartuaz eta eguneroko erosketak herria egitea ahalbideratuaz.

Helburu estrategikoa 1.3: Garapen turistiko iraunkorra sustatu gure ondare naturala eta kulturala balioan jarriaz eta horrela lehenengo sektoreko jarduera ekonomikoa eta zerbitzuen jarduera bateragarri eginaz.

Helburu operatiboa 1.3.1: Komunikazio plana diseinatu eta egikaritu

Helburu operatiboa 1.3.2: Ibilbideak garbi mantendu eta seinalizazioak egoki.

Helburu operatiboa 1.3.3: Turismo bulegoa zabaldu uda eta aste santutan.

Helburu estrategikoa 1.4: Egurrarentzat alternatibak bilatzea espezie eta produkzio eredu ezberdinak aztertuaz eta bideragarritasun ekonomikoak analisatuaz.

Helburu operatiboa 1.4.1 Jardunaldi eta mahai sektorialak antolatu.

Helburu estrategikoa 1.5: Herriko gremioekin akordioak egin bertoko eraikuntza eta mantentze lanak beraiek egitea ahalbideratuaz.

Helburu estrategikoa 1.6: EGOINEkin akordioak egin herritar gehiagok lanerako aukera bertan izan dezan.

Ardatz estrategikoa 2: Oreka ekologiko bat bilatzea gure baliabide natural eta energetikoen kudeaketa iraunkorra eginez.

Helburu estrategikoa 2.1: Gure baliabide natural eta energetikoen kudeaketa iraunkorra sustatu.

Helburu operatiboa 2.1.1 Energia berriztagarriak sustatu (eguzki indarra, haizerarena, urarena...)

Helburu operatiboa 2.1.2 Uraren eta udal basoen kudeaketa iraunkorra sustatu.

Helburu estrategikoa 2.2: Etxeko hondakinen birziklapena sustatu eta horren kudeaketa eredu zehaztu eta aplikatu.

Helburu estrategikoa 2.3 Paisaia balioan jartzeko programa diseinatu.

Helburu estrategikoa 2.4 Gune degradatuak aztertu eta beraiek berreskuratzeko programa abian jarri (Eako papelera kasu).

Helburu estrategikoa 2.5 Ogella biotopo

Ardatz estrategikoa 3: Herritarrei bizi kalitate ona eskeintzen dien herria; oinarrizko zerbitzu publiko eta ekipamentu publiko egokiak eskeiniz eta herriko ondare natural eta kulturala zainduaz eta suspertuaz.

Helburu estrategikoa 3.1: Zerbitzu publikoen eskaintza garatu; gure herriaren tamaina eta izakera kontuan hartuta eta oinarrizko zerbitzu publikoen hobekuntza eta osagarritasuna bilatuaz.

Helburu operatiboa 3.1.1: Oinarrizko zerbitzu publikoak hobetu eta osatu.

Helburu operatiboa 3.1.2: Ie, Natxitu eta Bedaronako kaleen garbiketa hobetu.

Helburu operatiboa 3.1.3: Gure herriaren tamainarekin eta izaerarekin bat datotzen zerbitzu publiko osagarriak eskaini.

Helburu estrategikoa 3.2: Aisialdirako eta kiroltarako dauzkagun instalazioak mantendu, hobetu eta osatu.

Helburu operatiboa 3.2.1 Eskolondoko dinamizazioa eta egokitzapena.

Helburu operatiboa 3.2.1 Natxituko bolatokia egokitu.

Helburu operatiboa 3.2.3 Bedaronako txokoa egokitu.

Helburu operatiboa 3.2.3 Portusoloko ingurua aisialdirako egokitu.

Helburu estrategikoa 3.3: Garraioa moteltzeko plangintza egikaritu Eako Donibane enparantzan eta Bedaronako herrigunean.

Helburu estrategikoa 3.4: Aparkalekuak egokitu eta berriak bilatu EAko papeleran, altxikarren, Natxituko ermita ondoan eta Bedaronan.

Helburu estrategikoa 3.5: Herriaren historia ezagutarazi.

Helburu estrategikoa 3.6 Herrilko lorak polito mantendu (auzolanean).

Helburu estrategikoa 3.7 Jaiak indartu eta pardaidetza anitza lortu

Helburu operatiboa 3.7.1: Jai batzordeekin egon eta dinamizazioa.

Helburu estrategikoa 3.8 Herriko artisau eta artistekin elkarlana

Helburu operatiboa 3.8.1: Herrian erakusketak antolatu.

Helburu operatiboa 3.8.2: Herri ondarean gehitu obrak.

Helburu estrategikoa 3.9. Herriko kultur taldeekin elkarlana.

Helburu operatiboa 3.9.1: HEArekin elkarlana

Helburu estrategikoa 3.10 Berdintasun plana diseinatu.

Helburu estrategikoa 3.11 Gazte plana martxan jarri.

Helburu estrategikoa 3.12 Edadetui zuzendutako laguntzak.

Helburu operatiboa 3.12.1 Euren eskubideen eskuorria prestatu eta etxez etxe banatu

Helburu operatiboa 3.12.2 Edozein tramite/eskaera egitea erraztu.

Helburu operatiboa 3.12.3 80 urtetik gora dituztenei jarraipena.

Helburu operatiboa 3.12.3 Aboitiz egoitzan dinamizazio proposamenak luzatu

Helburu estrategikoa 3.13 Eskola

Helburu operatiboa 3.13.1 Herritarren gunen dinamizatzailerak

Helburu operatiboa 3.13.2 Haizederren lehen hezkuntza abiarazi.

Helburu operatiboa 3.13.2 Ieko umeen %100 Haizederrera joatea

Helburu estrategikoa 3.14 Helipuertoa kudeatu.

Helburu estrategikoa 3.15 Oinezbideak eta herri bideak zaindu, garbi mantendu eta berriak proposatu (Ispaster eta Ibarrangelurantz)

Ardatz estrategikoa 4: Herriaren izaera eta identitatea mantenduaz herritarrei bertan bizi ahal izateko etxebizitzaren eskuragarritasuna eskaintzen duen herria

Helburu estrategikoa 4.1: Urte osorako alokairua sustatu.

Helburu operatiboa 4.1.1 Sentsibilizazio kanpaina abian jarri.

Helburu estrategikoa 4.2: Alde zaharraren eraberritzea sustatu.

Helburu operatiboa 4.2.1 Eraberritzeko laguntzen berri eman.

Helburu operatiboa 4.2.2 PERIa egin

Helburu estrategikoa 4.3: Etxebizitza tasatuen kudeaketa publikoa.

Helburu operatiboa 4.3.1 Ordenantza berria egin.

Helburu operatiboa 4.3.2 Bedaronakoei irtenbidea, De La Rivarekin negoziatu.

Helburu estrategikoa 4.4 Baserri etxeetarako ordenantza egin.

Helburu estrategikoa 4.5 Udal etxebizitzaren alokairurako ordenantza berregin.

Ardatz estrategikoa 5: Euskeraz bizi den herria

Helburu estrategikoa 5.1: Udaletxean euskera eguneroko tresna

Helburu operatiboa 5.1.1 UEMAN sartu

Helburu operatiboa 5.1.2 Ordezkarioran hizkuntz lidergoa landu

Helburu operatiboa 5.1.3 Euskera sustatzeko plana martxan jarri

Helburu estrategikoa 5.2: Ieko euskera aberastasuna jaso/zabaldtu

Helburu estrategikoa 5.3: Euskerazko hedabideak diruz lagundu

